


OLAGARRO URDINEN MISIOA



Gaur gauean espazio-ontzi bat sartu da nire logelako leihotik. Susto **galanta** hartu dut! Espazio-ontzitik olagarro urdinak atera dira. Olagarroek esan dute:

- Goazen itsasora. **Zerbait** ikusi behar duzu eta.

Ixil-ixilik etxetik atera gara. Txalupa hartu dugu eta olagarroek itsasoa **kutsatuta** dagoela **erakutsi** didate. Ni oso kezkatuta geratu naiz eta haiek esan dute:

-Zerbait egin behar duzu. **Arazo** larria da hau.

- Arrazoi duzue. Lurra **zaindu** behar dugu. Eta itsasoa ere bai. Eskolan kontatuko dut eta beste eskola batzuetara ere joango naiz.

Olagarroak espazio-ontzian sartu eta zeruan desagertu dira. Ni etxera itzuli naiz. Amak sartzen **harrapatu** nau eta **errieta** egin dit.

galanta: handia **zerbait:** algo **kutsatuta:** contaminado **erakutsi:** enseñar

arazo:problema **zaindu:** cuidar **harrapatu:** pillar **errieta egin:** reñir

AUKERATU ERANTZUN ZUZENA

Olagarroak gaiztoak dira eta Lurra inbaditu nahi dute.

Olagarroen misioa itsasoa salbatzea da.

Mutila telebistara joango da itsasoen egoera kontatzera.

Mutilak bere hiriko eskoletan emango ditu hitzaldiak. (**hitzaldi:** charla)

Ama beldurtu da espazio-ontziko olagarroengatik.

Ama kezkatu da semearen osasunagatik.